## KUROSAWAREN UR-ATORRA

Kristal-molekulen mikroegituretan
atomo ñimiñoen arteko amildegi sakonak
lotura-indar dira,
lotura eta kolore,
eta horregatik,
  horregatik erakartzen gaitu gauak,
horregatik zorabiatzen,
gaua beste amildegi bat delako,
non denboraren zeluloidean
biziaren ozpina ardo gozo bihur daitekeen, egunsenti mirail,
gu geu ere ez bait ginateke ezer izango
baldin eta indar ezkutu horiengatik ez balitz,
zeinen bidez
portzelana beltzetako asteroide eta kometa noragabetuak
erakarri egiten gaituzten,
eta zetazko ilargi hiriminak ere bai
urmaelaren gainean urrezko xafletan desegiten denean,
edo kimono airosoetan,
zafiroak eta diamanteak
pagodetzko orratzeetan,
eta nik ere
  horregatik maite zaitut agian,
horregatik eraikiko dut itzal horien gainean
zure begien argia...




poemas autógrafos